

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

BERRI PAPERERA



AMAIA ZENTROA
Benito Perez Galdos Z/G
01002 Gasteiz
Araba
E.: araba@bertsozale.eus
T.: 945 01 05 05
www.bertsozale.eus/araba



U16 = abka16 + 11koa + BO + BB

ABEren mekanika kuantikoa, Trebiñun

Asier Lafuente

Araba ez da Gasteiz! 2013an Gasteizko zentralismoa alde batera utzi genuen eta Elkartearen egun potentea Izarran egitea erabaki genuen. Borobila atera zen, eta segida jarraitu genuen 2014an Agurainen, 2015ean Langraiz eta aurten Trebiñun egin dugu. Araba ez da Gasteiz eta Trebiñu Araba da; Einsteinen formula matematikoa erabiliz.

Urtarrilaren 16an, azken urteetan egin izan den antzera, egun osoko igurtzia Arabako bertsolaritzaren nukleoaren barruan. Atomoek, 30 inguru, batzuk urrunetik etorrita, Trebiñuko plazan elkartu eta Kuadrilla artekoaren aurkezpen prentsaurrekoa egin eta argazki kolektiboa atera genuen. Sistema elektromagnetiko bitxia Kuadrilla artekoarena; 4 edizioa, ia guztietan aldaketak... Aurten 14 talde, 6 topaketa, erronka bitxiak eta sasi-finala non eta Argantzunen... Ikertzeko sistema da.

Ondoren, Arabako Bertsozale Elkartearen Batzar Orokorra ospatu genuen. 20 bazkide bildu ginen Trebiñuko udal aretoan. Lehendabiziko aldiz ABEren formula matematikoetan Trebiñu horrela kontutan hartzen dela. Elkartearen diru kontuak eta bertsogintzaren dinamismo-aktibazioaren inguruan landu genuen, bereziki.

Bertako Roa jatetxean bertso-bazkaria egin genuen. Saiorako ABEk Arabako bertsolari eta gai-jartzaileei kantatzeko aukera eskaini zien; Xabi Igoak eta Iñaki Viñasprek izena eman zuten, eta Nieves del Alamo aginduetara saio ederra eskaini ziguten. Ez ziren bertsotan egin zuten bakarrak, batzuk auto-aktibatuz ziren.



KOPLA

Nahiz ta ez dugun guk nahi adina euro bileterik lortzen guztion lanak jarraituko du proiektua egonkortzen!



Argitalpenaren
laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



Arabako Bertso Eskolen mapa

Aukera zabala, giro paregabea, pertsona jatorrak...
Zatuz Bertso Eskolara!

Uxue Diaz de Cerio

Arabako Bertso Eskolek 33 ikasturte betetzen dituzten honetan, Arabako Bertso Eskolen mapa ezagutarazi nahi genizueke. Ikasturteak gora, ikasturteak behera, talde berriak sortu, errotu edota desagertu izan dira. Kide berriak hurbildu, bertsogintzan murgildu edota urrundu izan dira. Bertso Eskola eta partaide bakoitzaren ibilbideak gorpuzkera ezberdinak irudikatu izan ditu urteetan zehar, eskualdez eskualde, herriz herri, Bertso Eskolaz Bertso Eskola, kidez kide...

Badira, Arabako Bertsozale Elkarteak eskutik laguntzen dituen Bertso Eskolak. Hamarkadetan zehar lurraldeko zoko denetara bideratu izan dira bertso irakasleak, bertsotan aritu eta trebatu nahi izan duten irakasleak asebetetzera.

Badira, gerora, hezi, hazi, eta bertsogintzan errotu eta gorpuztu diren Bertso Eskolak. Egun autonomo gisara funtzionatzen dutenak, irakaslerik gabekoak. Batez ere bertsoaren sorkuntzan trebatzen direnak eta hurbilean gai jartzaileak, epaileak edota saio antolatzaileak dituztenak. Eta ingurumarian noski,

Bertso Eskolarekin igurtziak izan dituzten bertsosozaleak dituztenak.

Badira, sendo errotzen ez diren Bertso Eskolak, agian gazteegiak ziren Bertso Eskolak. Joan etorrian ibiltzen diren kideak dituztenak eta urteak pasata agian berriz ere bertsogintzara inguratzen diren kideak dituztenak.

Badira, oholtza exijenteenetara salto egiteko, bertsoa bere osotasunean landu eta ontzeko nahia duten kideak. Badira, lagun arteko afaritan bertsotan aritzeko trebatzen diren kideak. Badira, arabako bertsogintzaren historian idatzirik geratu diren izenen jabe diren kideak.

Badira, bertso kantugintza Bertso Eskolako lau pareten arteko anonimaturako utzi eta oholztan bertsogintzako beste alorretan ere aritzeko trebatzen diren gai jartzaile, gai emaile edota epaileak.

Badira, bertsoa maite dutenak, bertsoaz gozaten dutenak, euskaraz gozatu nahi dutenak.

Bertsotan Aritzeko Bertso-saioak

Asier Lafuente

Paradojikoak, bertsotan aritzeko bertso-saioak. Zertarako bestela bertso-saio bat??

2015eko Arabako Bertsolari Txapelketa ondorengo balorazio bileran ondorioztatu zen bertso-saio gehiago behar zirela. 2015eko udazkenean 41 bertsolarik erantzundako galdeketa ere ideia hau jaso dugu.

ABE bertsosozaleen elkarte da, bertsosozalea du oinarrizko helburua. Ondorioz, Araba bertsosozaletzeko plazak bilatzen ditu, baina ez ditu kudeatzen nork kantatu plaza horietan. Ezin du behartu antolatzaileei nahi ez dituen bertsolariak edo gai-jartzaileak eramateko. Bertso antolatzaileek edo arduradunek erabaki behar dute nortzuk kantatu; haien gustuen arabera eta bertsolarien komunikatzeko gaitasunaren arabera. Beraz, kantatzeko eta aurkezteko aukerak emateko Bertsotan Aritzeko Bertso-saioak egitasmoa martxan ipini dugu; nahi duena aktiboa mantentzeko eta bertsogintza aktibatzeko. Ezaugarri hauek dauzka:

-Noizbehinka antolatuko dira, egutegirik gabe.

-Ez dira bertsosozaleentzako saioak, bertsolariak eta gai-jartzaileak aritzeko baizik.

-Ez dira publikoak egingo (ez agendan, ez kartelik) baina ateak irekita egongo dira parte hartzaileen lagunak, senideak edo herrikoren bat etortzeko.

Funtzionatzeko era:

-Arabako bertsolari eta gai-jartzaileei whatsapp- ez eta emailez jakinaraziko zaizkie: data, lekua, ordua, izena emateko epea eta formatua.

-Izena ematen dutenen artean zozketa egingo da saioa osatzeko.

Abenduaren 12an, Gasteizko Amaia Zentroan, egin genituen lehengo bi saioak. Kantatu zutenek eta bi gai-jartzaileek oso balorazio ona egin zuten.

Erne, laster hurrengo Bertsotan Aritzeko Bertso-saioak Bertsotan Aritzeko Bertso-saioak Bertsotan Aritzeko Bertso-saioak... Oooooommmmm

<p>AIARALDEA AMURRIO (Kultur Etxean) Helduak, asteazkenetan 17etan Arduraduna: Unai Mendibil</p> <p>LAUDIOKO INSTITUTUA Gaztetxoak, asteartetan institutuan Arduraduna: Asier Rubio</p>	<p>GASTEIZ BERTSO LANTEGIA Astelehenera Iparralde Gizarte Etxean Helduak, 19:30etatik 21:00etara Arduraduna: Felipe Zelaieta</p> <p>AMAIA ZENTROA -Gazte eta helduak, ostegunetan 19etan Arduraduna: Iñaki Viñaspre -Gazteak, larunbatetan 11etan Arduraduna: Oihane Perea</p> <p>BERTXILIKA Armentia Ikastolan Arduraduna: Oier Arbina</p> <p>Talde autonomoak: Kakiturri, Azkorak Zorroztu eta Errekaleor</p>	<p>GORBEIALDEA LEGUTIO (Kultur Etxean) -Haurrak, ostiraletan 16:30ean. Maria Fuentes -Haurrak, larunbatetan 15:30ean. Iñaki Lertxundi -Gazte eta helduak, larunbatetan 12:30ean. Oihane Perea</p> <p>ARAMAIO (Kultur Etxean) -Haurrak, ostiraletan 16etan. Peru Abrrategi -Gaztetxoak, ostegunetan 17:30ean. Martin berrizbeitia -Gazteak, ostiraletan 19etan. Peru Abarrategi -Helduen talde autonomoa</p> <p>IZARRA (Frontoian) Gazte eta helduak, ostiraletan 20etan. Zigor Enbeita</p> <p>MURGIA (Bea Murgia Etxean)</p>
<p>ARABAR MENDIALDEA Kanpezu Kultur Etxean -Haurrak, asteazkenetan 18:30ean -Helduak, asteazkenetan 20etan Arduraduna: Julen Zulaika</p>	<p>LAUTADA (LAUBE) AGURAIN (Arramel kaleko lokalean) Haurrak, astelehenera 16:45etan Arduraduna: Oier Arbina</p> <p>ZALDUONDO (Udalbiltzean) -Haur eta gaztetxoak, larunbatetan 16etan Arduraduna: Jon Ruiz de Pinedo -Helduen talde autonomoa</p>	<p>ARABAR ERRIKOA OION (IKA euskaltegian)</p> <p>-Gaztetxoak, asteartetan 17:30ean Arduraduna: Oihane Perea</p> <p>-Helduen talde autonomoa</p>

Legutioko bertso-eskola

Konkistak darrai!

Hasierarekin hasi zen dena. Bueno, egia esan, Legutioko bertso eskolak izan dituen birsortze eta etenaldiak kontatuko bagenitu, liburu bat idazteko aukera edukiko genuke, baina Berri Paperan gaudenez, azken lore aldiarekin jarraitzea besterik ez daukagu. (Informazio osoa eskuragarri urtegiokronikak.eus-en).

Garai latza zen gure herrian, isiltasuna nagusia zen herriko kaleetan zehar, kanturik, doinurik ez. Azken bertsolarien erbestaldia kolpe gogorra izan zen herriarentzat, baina horrelako egun gris batean zaldi gainean sorgin bat etorri zen bere kapela zorrotzarekin. Gazte bakarrak eduki zuen berarengana hurbiltzeko adorea: "Gandalf, komarkaz erratu zarela uste dut" -esan zion. "Aizu, ni ez naiz Gandalf delako hori, ni atzerritik nator, Aizkorriko harri sakonenetatik, nire izena ezagutzen duzu, baina ez dakizu nirea denik". Horrela konturatu zen gaztea, herri guztietako istorioetan agertzen zen sorgin Perearen aurrean zegoela.

Sorginari esker, Legutioko Frontea sortu zen, eta geroztik, bi astetan behin hainbat zoro elkartu eta kantarazten ditu bere botere magikoekin. Egun, frontearen hedapena ematen ari da, jada hainbat lurralde konkistatu ditugu, eta ez badakizue zertaz ari garen, gutxi barru helduko gara zuen lurretara. Konkistaren hastapenak Lautadan izan ziren, haiek antolatutako Otazako udalekutan gonbidatuak izan ziren sasiegaña Lertxundi eta Maria Lujanbiorekin. Bonboa bai baina dirurik ez! Eta gutxi balitz, aurrekontu eskasari ohore eginez, jogurta izan zen menu nagusia, nahiz eta janaria "ahoa sartzeko" aukera izan genuela esatea guztiz egia ez den. Hala ere Lautadako bihotzetara heltzea lortu genuen, konkista aurrera eramanez.

Atzerritarrak ere badaude jakinaren gaienean, urtero urtarrilean bertso



saio izugarria antolatzen dugu hainbat bertsolari ilustre eta bertako beste bertsolari xume batekin. Aurten Abarrategi nagusiak dauka ohorea, eta Aramaiokoa izan arren, ziur gaude Araba leku onean utziko duela.

Herrian ere hedatzea lortu dugu. "Pantanoko zulo batean, hobbit bat bizi zen"-J.R.R Tolkienek esan ohi zuen, baina honek ez zekien Legutioko bertso eskolan hobbit bat beharrez hobbit ume batailoia prest dugula eraso guztiei aurre egiteko. Gogor entrenatzen dira ostiral eta larunbatean noizbait euren irakasleak baino hobeak izateko (ez da oso zaila izango). Eta gutxi balitz, Jainkosak ere gure alde ditugu. Gure aholkularia izan den

apaizari, hainbat bala bota genizkion Legutioko txupinean agur dotore bat emanez, beste hainbat ekitaldiez gain: poteo, Gazteak Plazara...

Bukatzeko, ezin ditugu ahaztu Legutioko parte diren iluntasunaren eta argiaren damak, atzerria konkistatzera bidali genituen eta haien bueltaren zain gaude.


Nor izango da hurrengo konkistatua? Agian zuek Izarra?

Hurrengo Berri Paperan Izarrako bertso-eskolaren artikulua.

AGENDA!

ZERNAHI

BOTERE KONTUA



Xabi Igoa

Kronikak dio Viñaspre eta biok izan ginela kantuan Trebiñun, baina denok dakigu hori ez zela horrela izan...

Boterea (eta ardoa) burura igotzen denean badakigu zer gertatzen den... Hura bai mitin festa... Guztion lehendakari zenak BEC-eko finala Arabara ekarriko zuela egin zuen zin! Batzuen alkate denak aldiz, Aramaion izango dela esan zuen...

Eskerrak diruzainak zentzu pixka bat eman zion kontuari...

6 TOPAKETA-ERRONKA:

URTARRILAK 23, **IZARRA**

BERTSO-LOJA, BERTSO-ERRONKAK

URTARRILAK 30, **LAJIO**

BERTSO-POTEOA, KOPLA LEHIAKETA

OTSAILAK 13, **ARAIAN**

TXALAPARTA-KOPLA-POTEOA, BERTSO-BOLO ZALDUNJON

OTSAILAK 20, **KANPEZU**

BERTSO-POTEOA, BERTSO-HERRI KIROLAK

OTSAILAK 27, GASTEIZ (**ETNEKALEOR**)

BERTSO-SORTAK, BERTSO-GUDA

MARTXOAK 5, **OION**,

TRIKI BERTSO-POTEOA, BERTSO-SAJO MUSIKATUA

MARTXOAK 12, **ARGANTZUN, FINALA / FESTA**



www.bertsozale.eus/araba

18:00 BEROKETA
MURAL MARGOKETA + TIRIKI & TRAUN DJ

19:00 HERRIARRA EXTRA OFIZIALA
AURKEZLEA TITO (INDARRAP)
EPAILEAK MAISHA (T21 KREW), JAGOBA ETA GAZTETXEA

19:40 FREE STYLERRAK
GATOM ANEGURIA IZAR MENDIGUREN
VIÑASPRE SOLOZABAL ODEI BARROSO

21:00 KONTZERTUA
BAD SOUND SELEKTAH STEPI & MORO

22:00 FREE STYLERRAK
FINALA

23:00 HERRIARRA
EKAITZ ZORIONZENO
BRINDISA

24:00 AFTER PARTY
RAYBON DJ

FREE STYLE TXAPELKETA
EKAITZ
IN DA HOUSE
URTARRILAK 23 LARUNGATA
GASTEIZKO GAZTETXEAN

Eta urtarrilak 24an...
Ekaitzen urtebetetzea
ZORIONAK EKAITZ!



Ekar dezagun etxera!